

## **UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN NAZIOARTEKO ARLOKO LANALDI-ERDIKO PROFIL TEKNIKOKO LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO OINARRIAK**

Oinarri hauen xedea da Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzian –Eusko Jaurlaritzaren unibertsitateen alorreko sail eskudunera atxikitako eskubide pribatuko erakunde publikoan– profil teknikoko lanpostu bat betetzeko prozedura arautzea, Unibasq-en nazioarteko jarduerarekin lotutako jardueretan laguntzeko eta jarduera horiek zabaltzeko.

Era berean, etorkizunean sor daitezkeen aldi baterako premiak estaltzeko profil teknikoko lanpostuen poltsa bat sortzea da deialdi honen helburua.

Infojobs enplegu-atarian (<https://www.infojobs.net/>) argitaratuko da deialdi hori eta deialdiaren oinarriak Unibasq-en webgunean ([www.unibasq.eus](http://www.unibasq.eus)) daude eskuragarri.

### **LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK:**

- a) Proiektuen arduradun den pertsonarentzako laguntza eta lan espezifikoetako nazioartekotzea, Agentziaren nazioarteko jarduerarekin lotuta:
  - o Nazioarteko sareetan parte hartzea.
  - o Nazioarteko dokumentazioa egokitzea Euskal Unibertsitate Sistemaren erabiltzeko.
  - o Informazioa kudeatzea eta agentziak egiten dituen nazioarteko ebaluazioak.
- b) Agentziaren jarduerari buruzko txosten teknikoak idaztea.
- c) Agentziaren webgunearen eta sare sozialen informazioa eguneratzea.

### **LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:**

Lanpostuari dagokion kategoria ebaluazioko teknikariarena da (lanaldi-erdian), Unibasq-eko kategorien egungo sailkapenaren arabera.

Lanaldi partzialeko kontratu baten bidez egingo da kontratazioa (% 50), obragatiko kontratuko modalitatean eta 21. mailari dagokion urteko soldata gordinarekin sailkapenaren eta Unibasq-eko ordainsari-sistemaren arabera, hau da, urtean 18.353 euro gordin lanaldi-erdiarako.

Lantokia Gasteizen kokatutako bulegoa izango da, nahiz eta beharrezkoa gerta daitezkeen zerbitzuaren premien arabera bidaiatzea, eta, hori horrela, bidaiatzeko prest egon beharra dago betiere.

Aurreikusitako kontratazioaldia 2019ko abenduaren 31ra arte izango da, 3 hilabeteko probaldiarekin.

Plaza kopurua: 1

## BETEKIZUNAK:

### a) Ezinbesteko betekizunak

- Lizentziaturako, graduako edo antzeko unibertsitate-titulua.
- Hizkuntzak: Euskara eta ingelesa jakitea (C1 maila edo antzekoa).

Ezinbesteko eskakizunak baztertzailak dira edozein kasutan ere.

### b) Honako merezimendu hauek balioetsiko dira proben edo egiaztapenen bidez:

- Euskarazko edota ingelesezko betekizunak baino goragoko ezagutzak (C2 maila) eta beste hizkuntza batzuei buruzko ezagutzak.
- Ofimatikako ezagutza orokorrak (Word, Excel,...) eta webgune eta sare sozialen mantentze-lanei buruzkoak.
- Atzerriko egonaldiak/laneko esperientzia.
- Prestakuntza/esperientzia kalitatea bermatzeko sistemetan.
- Lan-esperientzia ikastetxeetan, batez ere unibertsitate-arlokoetan.

### c) Honako kompetentzia hauek balioetsiko dira elkarrizketa pertsonal batean:

- Antolaketarako eta plangintzarako gaitasuna.
- Komunikatzeko gaitasuna.
- Talde-lanerako gaitasuna.
- Lanerako gaitasuna giro multikulturaletan.
- Egokitze/malgutasunez jarduteko gaitasuna.
- Enpatia.
- Arazoak konpontzea.
- Kalitaterako orientazioa.
- Lanposturako motibazioa.
- Txosten teknikoen idazkuntza.

## ESKAEREN AURKEZPENA

Interesdunek hautaketa-prozesuan parte hartzea eskatu ahalko dute 2017ko abuztuaren 16ra arte (egun hori barne), SOIL-SOILIK Infojobs enplegu-atarian (<https://www.infojobs.net/>) argitaratutako iragarki bidez.

Egindako azterlanak, lan-esperientzia eta deialdian finkatutako betekizun eta merezimenduen betetzeari buruzko datu guztiak bildu beharko ditu aurkeztutako CVak.

## HAUTATZEKO PROZEDURA:

**1. fasea: Merezimenduen balioespena:** Honako hauek balioetsiko dira CVaren arabera: titulazioak, prestakuntza, informatika, hizkuntzak eta esperientzia 40 puntuko gehienekoraino, I. eranskinen ezarritako irizpideen arabera.

Bost puntuazio onenak dituzten pertsonak elkarrizketa pertsonaleko eta proba praktiketako hurrengo fasera igaroko dira.

## **2. fasea: Elkarrizketa pertsonala eta proba praktikoak.**

Unibasq-eko zuzendaritzako eta langile teknikoen arteko kideek osatutako Hautaketa Batzordeak elkarrizketa pertsonal bat egingo die aurretik hautatutako pertsonei beren CVaren arabera eta II. eranskinean deskribatutako proba eta ariketa praktikoak egingo ditu, hautagaiak erakunderako duten egokitzapen-maila ebaluatzeko konpetentzia tekniko edo generikoak balioetsita.

**Dena dela, elkarrizketa pertsonala eta proba praktikoak INGELESEZ** egingo dira Unibasq-en goitzan eta II. eranskinean ezarritako irizpideen arabera balioetsiko dira.

## **HAUTAGAIEN HAUTAKETA**

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, guztizko puntuazio handiena lortzen duen izangaiaren aldeko kontratazio-proposamena egingo du Hautaketa Batzordeak, fase bakoitzean lortutako puntuazioak batu ondoren, edo irizpide horren arabera haren atzetik dagoenaren alde, lehenengo izangai horrek uko egiten badio.

Berdinketa badago, eta beharrezkoa bada, Hautaketa Batzordeak beste probaren bat adostuko du, hautagai onena hautatzeko.

Hautaketa-probak amaitutakoan, 1. fasea gainditu eta 2. fasean 8 puntuko edo hortik gorako puntuazioa lortzen dutenak poltsa batean sartuko dira, eta Unibasq-en izaten diren profil horretako lanpostu hutsak aldi baterako betetzea izango da poltsa horren helburua. 5 urteko indarraldia izango du poltsak.

## I. ERANSKINA

- **Curriculum Vitaea: 40 puntu gehienez**
  - Beste unibertsitate-titulu batzuk. Ez da balioetsiko deialdian parte hartzeko eskatutako titulua (gehienez 5 puntu):
    - Diplomatura: puntu 1
    - Lizentziatura/Gradua: 1,5 puntu
    - Masterra: 2 puntu
    - Doktoretza: 3 puntu
  - Espezializazio-ikastaroak lanpostuari dagozkion ikasgai eta diziplinetan (Kalitatea, batez ere Goi-mailako Hezkuntzan, edo antzekoa), 5 puntu gehienez:
    - Espezializazio-ikastaroak, 250 ordutik gorakoak:
      - hautagaiak egiaztatutako ikastaroak balioetsiko dira, puntu 1ekin egiaztatutako ikastaro bakoitzeko, 2 puntuko gehienekora iristeraino.
    - Espezializazio-ikastaroak, 100 ordutik gorakoak; hautagaiak egiaztatutako ikastaroak balioetsiko dira, 0'5 punturekin egiaztatutako ikastaro bakoitzeko, 1,5 puntuko gehienekora iristeraino.
    - Ikastaroak, 20 ordutik 100 ordura bitartekoak; hautagaiak egiaztatutako ikastaroak balioetsiko dira, 0'25 punturekin egiaztatutako ikastaro bakoitzeko, 1,5 puntuko gehienekora iristeraino.
    - Bestelako ikastaro, mintegi edo hitzaldiak; 0'10 punturekin balioetsiko dira 6 ordutik gorako jarduera bakoitzeko, eta 0'05 punturekin, aldiz, 6 ordutik beherako jarduerak.
  - Ofimatika-ikastaroak lanpostuarekin lotutako ikasgaietan; 5 puntuko gehieneko guztizkoarekin balioetsiko dira hautagaiak egiaztatutako ikastaroak honako irizpide honi jarraikiz egindako ikastaroaren irakastorduen edo IT txartela egiaztapenaren arabera:
    - 250 ordutik gorakoetan, 250 orduko puntu 1
    - 100-250 ordukoetan, 0'5 puntu ikastaroko
    - 20-100 ordukoetan edo IT txartela maila aurreratuan, 0'25 puntu ikastaroko/txarteleko
    - 6-20 ordukoetan (IT txartela oinarritzko maila) 0'1 puntu ikastaroko/txarteleko
    - 6 ordutik beherakoetan, 0'05 puntu ikastaroko

Hautaketa Batzordeak modu espezifikagoan zehaztu ahalko du oinarrietan bildu ez den ikastaro interesgarriren bat, eta aurreko ataletan ezarritako muga arabera balioetsiko da.

Era berean, eta Hautaketa Batzordeak hala iritzita, ikastaroren bat balioetsi gabe utzi ahalko da, ikastaro hori denboran hainbat alditan errepikatu bada eta errepikapen horrek ez badu kualifikazio handiagorik eragiten.

- Hizkuntzak jakitea (5 puntu gehienez)
  - Ingelesa eta euskara. Goragoko mailaren (C2) aurkeztutako egiaztapena balioetsiko da 2,5 puntuko puntuazioarekin.
  - Beste hizkuntza batzuk:

A1 eta A2	0.25
B1 eta B2	0.5
C1	0.75
C2	1

- Esperientzia profesionala unibertsitate-arloko kalitate-agentzietan, ikastetxeetan edo kalitatea kudeatzeko sistemetan:
  - 10 puntuko gehienekora iristeraino balioetsiko da 0'2 punturekin esperientzia-hilabete bakoitzeko deialdiaren aurreko 5 urteen barruan eta 0'1 punturekin aurreko urteetako esperientzia-hilabete bakoitzeko (betiere lan egindako hilabeteko unitateen gain zenbatutakoak).
- Atzerriko esperientzia profesionala Hezkuntza edo Kalitatean (gehienez 10 puntu):
  - 0'4 punturekin balioetsiko da esperientzia-hilabete bakoitzeko deialdiaren aurreko 5 urteetan eta 0'2 punturekin aurreko urteetako esperientzia-hilabete bakoitzeko. (betiere lan egindako hilabeteko unitateen gain zenbatutakoak)

## II. ERANSKINA

- **Probak edo ariketa praktikoak: 30 puntu gehienez.**

Proba egiteko hitzaldi baten bideo labur/laburpen bat ikusi beharko da eta testu espezializatu bat irakurri, bi atalen laburpen-txosten bat idazteko ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz.

Entzumena eta irakurmena balioetsiko dira, baita idazmena ere. Erabilitako hizkuntzaren aberastasuna eta zehazteko gaitasuna balioetsiko dira, 1etik 9raino puntuatutako 3 maila (oinarrizkoa, ertaina eta goikoa) biltzen dituen eskala batean.

- **Elkarrizketa pertsonala: 30 puntu gehienez.** Honako konpetentzia eta faktore hauek balioetsiko dira 1etik 9raino puntuatutako 3 maila (oinarrizkoa, ertaina eta goikoa) biltzen dituen eskala batean:

- Antolaketarako eta plangintzarako gaitasuna
- Komunikatzeko gaitasuna
- Talde-lanerako gaitasuna
- Lanerako gaitasuna giro multikulturaletan
- Egokitzeko/malgutasunez jarduteko gaitasuna
- Enpatia
- Arazoak konpontzea
- Kalitaterako orientazioa
- Lanposturako motibazioa